


MERKATU SEGMENTAZIOA

Gure txakurrentzako hotela eta eguneko zentroa, txakurra duten pertsonentzako zerbitzua eskaintzen du. Zure txakurraz kezkatu beharrik gabe, zure betebeharrak egiteko aukera izango duzu.



Ikerketa sakon baten ostean, esan dezakegu gure bezeroak 25 eta 70 urte tarteko pertsonak izango direla, haien txakurrak zaintzeko eta hezitzeko denbora gutxien duen publikoa delako. Hauek, denbora asko lanean aritzen dira eta gehienetan profil hau dutenek hirian eta etxebizitzetan bizi dira. Bestalde, baserrietan bizi diren pertsonak bertan lan egiten dute; beraz, txakurraren zaintza egin dezakete arazorik gabe. Ondorioz, zure txakurrari arreta eta ikasketak emateaz arduratuko gara.

Bizi garen herrialdean, geroz eta herritar gehiagok lau hanketako lagunekin partekatzen dituzte etxeak. 2021ean, Espainiako txakur-populazioa 9,3 milioi ingurukoa izan zen. Hala ere, zaila da zifra zehatz bat ezartzea Espainian bizi diren txakurren kopuruari buruz, nahiz eta munduan 500 milioi inguru daudela kalkulatu den.

